

# BORTZIRIETAKO AGENDA 21

## Gazteen iritzia prozesuan barneratuz



<b>Bilera:</b> Bortziritako gazteekin saioa, beraiei eginiko inkestaren emaitzak landu eta partehartzen dinamika burutzeko	<b>Data:</b> 2006/11/16	<b>Ordua eta iraupena:</b> 11:15etan Ordu eta hiru laurden	<b>Lekua:</b> Berako Kultur Etxean
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------	------------------------------------------------------------------	---------------------------------------



Akaso egunen batean utziko diete gazteei euren gaztaro propioa asmatzen.  
Quino

### ● **Bortziritako Agenda 21ean gazteen iritzia barneratzea, gure helburua**

Bortziritako Agenda 21 prozesuari 2005ko ekainean eman genion hasiera. Eta ordutik pixkanaka, pauso txiki baina irmoz, aurrerantz goaz fase ezberdinak landuz: herritarrei inkesta, diagnosi txostena, ekintza planaren zirriborroa...

Hala ere, **orain artean ez dugu lortu eskualdeko gazteen iritzia eta partehartzea prozesuan barneratzea**; baina hain zuzen ere gazteok Bortziritako etorkizuna zaretela jakinik, nola utzi alde batera?

### ● **Toki Ona Institutuko Gazteei inkesta, lehen pausoa**

Kezka eta gogoeta hori oinarri izanik, Bortziritako **gazteentzat bereziki prestatutako inkesta bat**<sup>1</sup> prestatu eta egitea bururatu zitzaigun. Eta ideia hori errealitate bihurtu dugu Toki Ona Institutuko zuzendaritza, irakaslego eta ikasleen borondate, laguntza eta prestutasunari esker.

Zehazki 2006ko irailaren 28an izan ginen Berako Toki Ona Institutuan, eta **90 gazteek erantzun zuten** eskuratu genien inkesta galdetegia. Gure eskerrona, lehenik eta behin, zuei guztioi!

### ● **Inkestaren emaitzen ondotik, 93 gazteekin solasean. Udalei mezua**

**Zer den gazteek inkestan erantzun dutena?** Zeintzuk diren emaitza esanguratsuenak? Datuen emaitzak, estatistikoki landu ondoren, txosten batean bildu ditugu.

Eta noski, beste modu batera izan ez zitekeenez, gure inkestari erantzun zioten gazteak izan dira emaitza horiek ezagutzen lehenak. Horretarako **Berako Kultur Etxean genuen zita, azaroaren 15ean, 90 gazterekin**. Eta guztiek onartu zuten gonbitea!

<sup>1</sup> Erabilitako galdetegia inkestaren emaitzak biltzen dituen txostenean dago, eranskinean, interesa duen ororentzat.


# BORTZIRIETAKO AGENDA 21

## Gazteon iritzia prozesuan barneratuz



<b>Bilera:</b> Bortzirietao gazteekin saioa, beraiei eginiko inkestaren emaitzak landu eta partehartzten dinamika burutzeko	<b>Data:</b> 2006/11/16	<b>Ordua eta iraupena:</b> 11:15etan Ordu eta hiru laurden	<b>Lekua:</b> Berako Kultur Etxean
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------	------------------------------------------------------------------	---------------------------------------

Emaitzak ezagutzera eman aurretik, **93 gazteak 9 taldetan banatu ziren**. "Lantxo" bat prestatua genuelako, orain arte beraiekin burututako esperientzia borobiltzeko: hain zuzen ere, lehenik banaka eta ondoren taldeka, emaitzen aurkezpenaren ostean erantzun beharreko bi galdera planteatu genituen:



- Emaitza gisa aurkeztu ditugun datu guztietatik, **zein ideia da gehien harritu zaituena**, edo nabarmenduko zenukeena?
- Bortzirietao **Udalei** inkesta honetako ideia edo **mezu bakar bat** helarazi nahi bazeniete, zein litzateke?

Hona, 93 gazteekin eta giro ederrean ospatutako saioaren ondotik bi galderei emandako erantzunak:

- Emaitza gisa aurkeztu ditugun datu guztietatik, **zein ideia da gehien harritu zaituena, edo nabarmenduko zenukeena?**

Gazte guztien artean, eta indibidualki, **74 ideia** jaso genituen. Zehatzago, ondoko taulan:

	Erantzun kopurua	Porzentaia
Eskolara trenez heldu direla esan dutenak	12	16,2%
Gazteen ustez udaletxeek parte hartzen dutela, irekiak direla... benetan hori da errealitatea?	7	9,5%
Etxebizitzarekiko kezka dutenen portzentaia altua. Zerbait egin beharko litzateke!	7	9,5%
Agenda 21a ez dugula ezagutzen	6	8,1%
Zenbat jendeke gelditu nahi duen hemen bizitzen	6	8,1%
Euskaraz dezentegite denaren datua	5	6,8%
Jendea bere herrian bizitzearekin kontent ez egotea	3	4,1%
Jendea gehienbat oinez ibiltzen delakoaren datua	2	2,7%
Harrituta gelditu naiz jende aunitzek erantzun ez izanaz	2	2,7%
Nahiz eta askok erran garapen jasagarriaren alde kolaboratuko luketela, benetan oso gutxi eginen dute hori	2	2,7%
Langabeziak kezkatzen gaitu	2	2,7%
Beste leku batean bizi nahi izatea	2	2,7%
Gure egoera politikoarekiko preokupazio falta	2	2,7%
Gazteak egoteko leku gutxi daudela	2	2,7%
Grafikoen kolore adierazgarriak eta politikak	1	1,4%
Emaitza anitzek kezkatu naute	1	1,4%
Jendearen axolagabekeria, Bordatxoren eskaeran suposatzen duen portzentaia altua...	1	1,4%
Kultura festa baino gehiago inporta dela	1	1,4%
Jende gehienak bigarren hezkuntza eta gero ikasten jarraitzeko asmoa duela	1	1,4%
Etorkinen gaia	1	1,4%
Garraio publikoaren gaia	1	1,4%
Bizikletaren erabilera eskasa	1	1,4%
Matxadakoa hainbeste ateratzea	1	1,4%
Jendeari gehien gustatzen zaiona ostatua izatea	1	1,4%
Igantzin inkestatutako jende guttien bizitzea	1	1,4%
Horrenbeste jendeke pentsatzea Bortzirietao lan egiten bukatuko duela	1	1,4%
Drogen gaiak eragiten digun kezka, eta informazio eta esku hartze falta metodo berriak erabiliz	1	1,4%
Bortzirien balorapen hain positiboa	1	1,4%
<b>GUZTIRA</b>	<b>74</b>	<b>100,0%</b>

# BORTZIRIETAKO AGENDA 21

## Gazteon iritzia prozesuan barneratuz



<b>Bilera:</b> Bortzirietao gazteekin saioa, beraiei eginiko inkestaren emaitzak landu eta partehartzen dinamika burutzeko	<b>Data:</b> 2006/11/16	<b>Ordua eta iraupena:</b> 11:15etan Ordu eta hiru laurden	<b>Lekua:</b> Berako Kultur Etxean
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------	------------------------------------------------------------------	---------------------------------------

- Bortzirietao Udalei inkesta honetako ideia edo mezu bakar bat helarazi nahi bazeniete, zein litzateke?**

Kasu honetan banakako erantzun gehiago jaso genituen (gazte batek baino gehiagok bi aukera edo mezu helarazi baitzizkigun): **107 guztira.**

	Erantzun kopurua	Porzentaia
Autobus eta garraio bideen ordutegia zabalagoa izatea	33	30,8%
Gazteentzako gaztetxea-egoitza	17	15,9%
Dantzalekua	12	11,2%
Matzadan argia falta da (baita ondoan kautxozko futbol zelaia ere)	11	10,3%
Gazteentzako ekintza gehiago	6	5,6%
Kiroletarako instalakuntzak hobetzea	4	3,7%
Igantzin gazteentzako lokala behar dugula	3	2,8%
Alkateak herritar guztien nahiak har ditzala kontutan, bere taldekoen gain	3	2,8%
Udaletatik jendearekiko eta bereziki gazteekiko hurbiltasuna landu beharra	2	1,9%
Ostatu gehiago herrietan, eta ordutegi zabalagoekin	2	1,9%
Herrian instalakuntza ezberdin gehiago egotea eta ondo mantenduak	2	1,9%
Berdegunek maite ditugu! Etxe hutsak bete ditzagun eta berdeguneak bakean utzi!	1	0,9%
Lesakako gazteentzat etxe berezi batzuk egitea	1	0,9%
Etxebizitza merkeagoak	1	0,9%
Euskara kontutan hartzea, galdu ez dadin	1	0,9%
Besta gehiago	1	0,9%
Arantzan gaztetxea	1	0,9%
Eskolako gazteei ezezik beste arloetako gazteei ere inkesta egitea beharrezkoa da	1	0,9%
Alkate guztiek jakin dezatela euskaraz	1	0,9%
Jendeak kultur arloan duen partehartze falta	1	0,9%
Rally edo karrera gehiago egitea	1	0,9%
Droga arinak legalizatzea	1	0,9%
Errepideak hobetu (N-121-A)	1	0,9%
<b>GUZTIRA</b>	<b>107</b>	<b>100,0%</b>

Banaka jasotako emaitzok indar handiagoa hartu zuten, **taldeka, guztien artean eta giro politean izan genuen eztabaida eta solasaldian.** Izan ere norberaren ideiak batuz emaitza aberatsagoa lortzea, elkarrekin ikastea, gogoetak eta kezak elkarbanatzea... posible egiten ditu partehartzeak eta lan bateratuak!

# BORTZIRIETAKO AGENDA 21

## Gazteon iritzia prozesuan barneratuz



<b>Bilera:</b> Bortzirietao gazteekin saioa, beraiei eginiko inkestaren emaitzak landu eta partehartzen dinamika burutzeko	<b>Data:</b> 2006/11/16	<b>Ordua eta iraupena:</b> 11:15etan Ordu eta hiru laurden	<b>Lekua:</b> Berako Kultur Etxean
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------	------------------------------------------------------------------	---------------------------------------

### ● **Eta guzti honekin, zer?**

Txosten hau, Agenda 21eko prozesuan sortu diren beste hainbatekin egin dugunez, Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako Udalei igorriko diegu. Zertarako?

- Batetik, eskualdeari buruzko hainbat gaiei buruz Bortzirietao **93 gazteek duten iritzia zein den** gertutik ezagutu dezaten.
- Bestetik, lantzen ari garen "Bortzirien iraunkortasunerako **Ekintza Planari begira gazteen beharrianak eta eskaerak** kontutan har ditzagun.

Horixe da gure konpromisoa!

**Guzti hau posible egin duzuelako, MILA ESKER eta hurrenarte!**

Eta ea aurrerantzean ere Bortzirietao Agenda 21en parte hartzera animatzen zareten!